

BEZEROEKIKO HARREMANAK

1-Zelan lortuko doguz bezeroak?

Bezeroak lortzeko, ikastoletara eta ikastetxeetara joango gara gure idea saltzera. Eurakaz kontaktuan jarriko gara bai e-mailez bai telefonoz, zuzendaria, ikasketa burua eta psikologoarekin gure proiektuaren aurkezpena egin ahal izateko hitzordua zehazteko. Gure idea azalduko deutsegu, aplikazioa erosi daien. Halan be, pribaduak edo itunpeko ikastetxeak ez diranen kasuetan, hezkuntza sailagaz kontaktuan jarriko gintzatekez gure proiektua eurei saltzeko eta, holan, ikastetxe publikoetan zehar hedatu ahal izateko.

Demo bertsio bat erakutsiko erakutsiko deutsegu. dohain eta denbora batez frogatu dezaten eta, gustatu izatekotan, definitiboa ordaintzeko.

Honetaz gan, ikastetxeen alkarte desbardinekin be kontaktuan jarriko gintzatekez, ahalik eta ikastola gehien entzun daien gure ideari buruz. Gure idea, lehenengo itunpeko eta pribatu diran ikastetxakaz lan egitea izango litzateke, askatasun gehiago dabelako kontratatzeko ikastetxe publikoek baino.

Honetaz aparte, sare sozialen bidez egingo genuke lan; ikastolek gure proiektua ikusteko ideagaz. Lehen kontaktu antzeko bat izango litzateke, non Instagram eta Twitter-eko aplikazioen bitartez identifikatu dogun arazoa eta emon deusagun urtenbideari buruz berba egingo dogun. Gainera, gure kontaktua bertan itxiko dogu interesa dabenak deitu edo idatzi daiezan.

2-Nola mantenduko doguz bezeroak?

Bezeroekin harreman jarraia izan gura dogu. Horretarako, ikastetxakaz kontaktua mantentidu nahiko genuke, lantzean behin ikastetxeetara joanez aplikazioari buruzko eguneratzeak azaltzeko edo e-mailez aplikazioari buruzko aldaketa posible eta barrikutza posible barriak bialduteko, euren eretxia kontuan izateko. Ez litzateke beti beharrezkoa izango ikastoletara joatea, Zoom lako aplikazioen bidez be egin leiteke eta, ikastetxeek erosoago ikusten badabe be.

Lehen esan dan moduan, sare sozialak eukiko doguz be, eta ez dira bakarrik bezeroak erakartzeko, mantenduteko be izango baitira, eguneraketak, hobekuntzak, eta aplikazioari buruzko informazio asko han egongo baita.

Datuen pribazitateari dagokionez, ahalik eta handiena izatea gustatuko litzauguke; izan ere, ikastetxeak kanpoko psikologo bat aukeratu nahi badu, psikologo horrek horren berri izango du. Horregatik, datuak babesteko kontratu bat sinatuko da, lege-esparrua eta pribatutasun-eskubidea betez. Bezeroak seguru sentitzea nahi dugu, eta zentroak berak erabiltzea datuak.